

Udaleri bakoitzeko alderirik bozkatuena

● EH Bildu ● EAJ ● PSE-EE ● PP ● Elk.Pod. ● Beste batzuk

ALEA

Berdea nagusitu da berriz ere

Udal eta foru hauteskundeak pasata, gobernu itunak erdiesteko negoziazioak hasi dira dagoeneko. Leku askotan udalak erraz osatuko diren arren, beste hainbatetan aritmetika ez da aise konponduko.

ERREDAKZIOA

Ohi baino ezusteko gehiagorekin bukatu dira bozak, euskal politikan gauzak gutxitan aldatzen direlako topikoa birrinduz. Gainera, laster datoz hauteskunde berriak, Madriletik iragarri dutenez.

Gurean, Arabako Batzar Nagusietan, boto gutxiko aldearekin, EAJK (15) lehen indarra izaten jarraitzen du, baina bi ezberdintasun nagusirekin 2019ko emaitzekin alderatuta: alde batetik, PSErekin (9 batzarkide, bat gal-

duta) batera ez du gehiago osoa osatzen; bestetik, EH Bildu (14 batzarkide, bi irabazita) lehen indarra izatetik 1.200 boto ingurura gelditu da.

Hortaz, Rafiño Gonzalezek akordio berriak bilatu beharko ditu hirugarrenez gobernuaren buru izan nahi badu. Joko horretan sartuko dira, bigarren eta hirugarren indarraz gain, PP (9 batzarkide, bat irabazita) eta Elkarrekin Podemos (3 batzarkide, bat galdua). Nolanahi ere, EH Bilduko ahaldungai Eva Lopez de Arroya-bek diputatu nagusi izateko aukera izango luke, PSE eta Elkarrekin Podemosekin gehiago osoa lortzeko akordioa erdietsiko balu.

Vox alderdi ultraeskuindarrak lehen aldiz batzarkide bat izango

du, 4.000 arabarrek baino gehiagok botoa eman baitiote, %3ko gutxieneko langa gaindituta.

Gasteiz

Lehia estua aurreikusten zen hiriburuan lehendabiziko lau alderdien artean, baina lehenengo bien artekoa izan da azkenik. Rocio Viterok gidatutako EH Bildu izan da lehen indarra, eta atzetik, 936 boto gutxiagorekin, Maider Etxebarria buru duen PSE-EE. Laugarren indarra izatera igaro da EAJ. Hain justu, EAJren jaitziera nabarmena izan da boz hauek utzi duten ondorio deigarrietako bat: 6.787 boto galdu ditu Beatriz


Artolazabal buru duen alderdiak. Hirugarren geratu da Ainhoa Domaika hautagai duen PP, eta, oso atzetik, Elkarrekin-Podemoseko Garbiñe Ruiz. Viterok 14 zinegotziren babesa beharko du alkate izateko; Maider Etxebarriak bere burua aurkeztuz gero, EAJ eta PPren babesa ere beharko du. Alderdi Popularrak dagoeneko iragarri du "egin beharrekoak" egingo tituela EH Bildu agintean egon ez dadin.

Aiaraldea

Laudion ere EH Bilduk eman du ezustekoa, eta galdutako goturlekua berreskuratu du. Ander Afibarrok nekez errepikatu ahaliko du alkatetza, eta Ajnize Gastakaren esku egongo da udal gobernu osatzeko ardura. Amurrión sozialistak dira zinegotzi bat irabazi duten bakarrak, gainerako alderdiak bere horretan geratu direlako. Herri honetan ikusteko zegoen 2020an Txerra Molinuevo (EAJ)

GASTEIZEN, EH BILDU NAGUSITU DA AURRENEKOZ, ETA EAJ LAUGARREN POSTURA AMILDU DA

Gasteizko Udaleko zinegotziak




Alderdia	2023	2019	Aldaketa
EH Bildu	7	6	+1
EAJ	6	7	-1
PSE-EE	6	6	0
PP	6	5	+1

ALEA


Udalerrietako banaketa

0% 10% 20% 30% 40% 50% 60% 70% 80% 90% 100%



BARNE MINISTERIOA

Arabako Batzar Nagusietako batzarkideak



Josune Irabien aurreko alkatearen partetik jasotako makila hauteskudeetan berresteko moduan egongo zen. Zortzi zinegotzirekin, hori egiteko moduan egongo dela dirudi, paktuak beharko dituen arren.

Artziniegan EH Bilduk zinegotzi bat gehitu du, eta sei zinegotzirekin ez du arazorik izango gobernu osatzeko. Aiaran EAJK nagusitasunari eutsi dio, baina bi zinegotzi galdu ditu, Aiara Batuz-en mesedean. Okondon Jon Escuzza (EAJ) alkateak aurreko emaitzak hobetu ditu.

Gorbeialdea

Hamabi urte bete ditu Zuiako Unai Gutierrezek agintean, eta beste lau urtez jarraituko du EH Bilduk. Aramaion ere EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak, baina zinegotzi bat galdu du. Emaitzak ikusirik, Iban Herrartek har-

tuko du Lierni Altunak utzitako aginte makila; Urkabustaizen ere ez da zalantzarik: EH Bilduk irabazi ditu hauteskundeak, eta Xabier Diaz de Arkaia errepikatuko du alkatetzan. Legution, berriz, EH Bilduk duen aginte makila

SALBUESPENAK SALBUESPEN, EH BILDU ETA EAJ ALDERDIAK DIRA JAUN ETA JABE LAUTADAN

TREBIÑUN ZERRENDA INDEPENDENTE BATEK IRABAZI DU, ETA ARGANTZON EAJ-REN ESKU GERATU DA

kolokan izan daiteke. Boto gehien eskuratu dituen arren, orain arteko nagusitasuna galdu du. Ikusteko dago Juan Kruz Jainagak makilari eusten dion edota Nerea Bengoa jeltzaleak beharrezko babesa lortzen duen. Zigoitian bi botoren aldearekin irabazi dio EH Bilduk EAJri, eta launa zinegotzi izango dituzte; PPren zinegotzi bakarra giltza izan daiteke, beraz. Arratzua-Ubarrundian EAJ izan da nagusi, baina boto eskas batzuekin atzetik datoz Goazen plataforma eta EH Bildu.

Añana

Aitor Abeziak 2015etik gidatu duen talde independentearen desagerpenarekin, estreinakoz Zambanako alkatetzan lortu du PSEK, Trinidad Zarzaren eskutik. Gainera, Arabako bere gotorlekuari eutsi dio PSEK, Iruña Okan hauteskundeak irabazita. Berantevilan, berriz, Mario Perek gidatu duen talde independentearen desagerpenak EAJren erabateko garaipena ekarri du; Erriberabeitian, Erriberabeitia Bizirik talde independenteak irabazi du. Eserlekuen berdinketa gertatu da Kuartangon EH Bildu eta EAJren artean. Añanako Kuadrillako gainerako udalerrietan, Añanan, Lantaronen, Armiñonen, Gaubean eta Erriberagoitian, EAJk aise irabazi du, nahiz eta guztietan botoak galdu dituen.

Lautada

Salbuespenak salbuespen, EH Bildu eta EAJ dira eskualdearen jaun eta jabeak oraingoan ere, eskualde osoko bost zinegotzi baino ez baitira beste alderdieta-koak; Dulantziko lau (independenteak) eta Burguko beste bat (PPkoa). Agurainen 2015ean galduko alkatetzan berreskuratuta, Raul Lopez de Uralde izango da

hurrengo alkatea, Ernesto Sainz Lanchares jeltzalea oposiziora bidalita. Agurainen galduko lidergoa Dulantziko alkatetzako konkistatuz konpentsatu du EAJk, Noemi Agirre Quintana zerrendaburuaren eskutik.

Trebiñu

Trebiñuko alkatetzan Treviño Día a Día taldearen esku gelditu da (Arabarekiko anexoaren aldekoa). EAJk alkatetzan eskuratu zuen 2019an, baina hiru urte beranduago, 2022ko udan, Adolfo Estavillo independenteak ordezkatu zuen Enrique Barbadillo jeltzalea. Duela lau urte boto gehien lortu zituen Ciudadanos del Condado zerrendaburu izan zen Estavillo. Oraingoan TDD talde independentearekin aurkeztu da. Bestalde, Argantzongo alkatetzan galdu du EH Bilduko Pablo Ortiz

de Latierrok, eta aurrerantzean Angel Niño jeltzalea izango da alkate berria.

Mendialdea

Zortzi urteko ibilbidearen ostean, Iber Basterraren talde independenteak aise irabazi du Kanpezun. Anartz Gorrotxategi jeltzaleak Arraia-Maetzuko alkatetzari eutsiko dio. Eta EH Bilduk EAJ gainditu du Lagranen: zinegotzi bakarra izatetik hiru izatera igaroda. Bernedon, eserlekuetan berdinketa egon da EAJren eta EH Bilduren artean, baina jeltzaleek boto gehiago lortu dituzte. Urizaharrean, berriz, bost zinegotzietatik hiru lortu ditu talde independenteak.

Arabako Errioxa

Oionen, EH Bildu aise nagusitu da bost eserleku lortuta. Goraka-

da nabarmena izan da, 2019an eskuratutako bizinegotzian aldean. Samaniegon ere lortu du alkatetzako koalizio abertzaleak, Pili Garmendiaren eskutik. Bastidan eta Guardian PP izan da alderdi bozkatuena, duela lau urte bezala. Herri horietan EAJ eta EH Bilduren arteko itunek jeltzaleentzako alkatetzak ziurtatu dituzte orain arte, eta ikusteko dago datorren lau urteetan ere jorkaldia errepikatuko den. Guardian zailagoa izango da, popularrek laugarren eserlekua lortu dutelako. Navaridasen, Miguel Angel Fernandezek (PP) ez du alkatetzan berrituko, EAJren mesedean. Alabaina, Alderdi Popularraren beste gotorleku batean, Mañuetan, Francisco Javier Garcia Perez de Loza agintean mantenduko da. Gainerako udalerrietan EAJ eta independenteak atera dira garaile.

ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

ERAKUSKETAK

- .Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)
- .Alejandro Cesarco. Beste adibide berri batzuk
- .Julia Spínola. Persona, foto, copia
- .Lutura mekanikoak. Praktika performatiboak museoan
- .Sahatsa Jauregi. Flux Coreo
- Testuinguruak bilduma batetik abiatuta
- .Iratí Gorostidi & Mirari Echávarri
- San Simón 62. Z aretoa

JARDUERAK

- .Solasaldia. Julia Spínola & Catalina Lozano
- 2023.06.02
- .Museoen etorkizunak. Michael Marder
- 2023.06.06
- .Lutura mekanikoak. Performance programa
- 2023.06.10/06.24/07.01/07.08
- .Zinema feministaren historiak. *Censor*, Prano Bailey-Bond
- 2023.06.04
- .Filmategiaren zikloa. Lumière emanaldiak
- OSTEGUNERO. EKAINAREN 22RA
- .CinémArtium. *La colline où rugissent les lionnes*, Luána Bajrami, sub. FR
- 2023.06.27
- .LORATEGITIK abiatuta. Bisita gidatuen programa
- ASTEAZKENERO ETA IGANDERO

www.artium.eus